



Azpeitiko Udala

## **OLATZ EIZAGIRRE ORBEGOZO, AZPEITIKO UDALEKO IDAZKARIAK.**

**ZIURTATZEN DUT:** Alkate-lehendakariak bi mila hogeita biko uztailaren batean, hitzez hitz jasorik honako hau dioen erabakia hartu zuela:

### **AZPEITIKO HIRI-ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORRAREN ALDAKETA GARMENDIALDE 2 HE-KO 2.2. "PEDILLEGI" AZPIEREMUARI ETA "SAN MARTIN" 2.3 JZ-RI DAGOKIONEZ.**

Aurrekariak:

Azpeitiko Udalbatzak **2013ko irailaren 17an** egindako bilkuran, Hiri Antolamenduko Plan Orokorra behin betiko onartzea erabaki zuen. Plan hori 2013ko irailaren 25eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 183. zenbakian, 2013ko urriaren 11n, 195. zenbakian, eta 2013ko azaroaren 6an, 211. zenbakian.

Organu berak **2021eko abenduaren 2an** egindako bilkuran onartu zuen Azpeitiko HAPO-ren aldaketa puntualari hasiera ematea H.E. 2 Garmendialde eremuaren barruan, 2.1. Perdillegi azpierzururako eta A.D.2.3 San Martin zuzeneko jarduketa lurzatirako.

Aldaketa honen bidez azpierzura batean aurreikusitako erabilera beste azpierzura aldatuko da; hau da, ekipamenduaren erabilera A.D.2.3 San Martin zuzeneko jarduketa lurzatitiki H.E. 2 Garmendialde eremuaren barruan, dagoen 2.1. Perdillegi azpierzura kokatuko da, eta alderantziz, H.E. 2 Garmendialde eremuaren barruan, dagoen 2.1. Perdillegi azpierzura bizitegi erabilera A.D.2.3 San Martin zuzeneko jarduketa lurzatira aldatuko da.

Plangintza aldaketaren helburua adinekoentzako beharrei erantzutea da, kon-tuan izanik gaur egungo San Martin egoitza dagoen eremuari ezargarri zaion Plan hi-drologikoak ez duela giza-ekapamendua handitzeko aukerarik ematen. Modu berean, babes publikoko etxebizitzentzako bizitoki-beharrei ere erantzutea nahi da.

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 104. artikulok hirigintza-planek ezarritako antolamendua aldatzeko prozedura zehazten du. Horrela, jasotzen da hirigintza-planen zehaztapenetan edozein aldaketa egiteko, plan-mota berbera erabili beharko dela, eta gainera, zehaztapen horiek onartzeko ja-rraitutako prozedura bera erabili beharko dela. Salbuespen gisa Plan Orokorraren Aldaketak -hautazkoa izango dute aurrerakinaren tramitazioa.

Dagokigun kasuan aurrerakina izapidatzea ez da beharrezkotzat jo, besteak beste, ondoren azalduko diren bi arrazoi hauengatik:

Alde batetik, bere eginkizuna eta helburuak kontuan hartuta, Aurrerakina izapidatzeko beharrezkoa da hirigintza-proposamen irekiak egotea eta



zehaztea, bai materialari eta bai lurraldeari dagokionez, edo bi ikusputuetatik, esku hartzeko aukera desberdinak sor ditzaketelako. Horiei buruzko eztabaida publikoa eta irekia sustatu behar da, erabaki egokia edo egokiak hartu aurretik.

Bestetik, proiektuaren hasierako onespeneren ondoren sustatu beharreko jendaurrean edukitzea nahikoa da, osagarri gisa, bere proposamenak ezagutarazteko, haien inguruko eztabaida abian jartzeko eta egokitzat jotzen diren erabakiak hartzeko.

Eta eskumenari dagokionez apirilaren 2ko 7/1985 Legearen (Toki Jaurbideko Oinarriak arautzen dituena) 21.1 artikulua emandako eskumenekin, **NAGORE ALKORTA ELORZA**, Udalaren Alkate-Lehendakariak **ERABAKI DUT**:

Emandako arrazoiak kontuan izanik, eta Hirigintza dokumentua idazteko talde teknikoak emandako erizpidearekin bat, Garmendialde 2 HE-KO 2.2. "Perdillegi" azpieroemari eta "San Martin" 2.3 JZ-ri dagokion Azpeitiko Hiri-Antolamenduko Plan Orokorren Aldaketa espedientean Aurrerakina ez tramitatzea.

Eta horrela jaso gera dadin eta, alkate udalburuaren oniritziarekin ziurtagiri hau eman dut, Azpeitian, bi mila hogeita biko uztailaren batean."

O.E.  
ALKATEA,

